BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3657

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 16koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Arte Plastiko eta ikusizkoen eremuan jarduerak sustatu eta garatzeko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordeen kideen izendapena argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 2ko Agindua, Arte plastiko eta ikusizkoen eremuan jarduerak sustatu eta garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezarri eta arautzen duena.

Kontuan izanda agindu honen 15. artikuluak Balorazio Batzordeen osaera Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez EHAAn argitara emango dela jasotzen duela.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena: Balorazio Batzordeen osaera argitaratzea. Batzordeetan honako kide hauek izango dira:

a) Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

Arturo Rodriguez Bornaetxea

Marta Arzak Espina

Xabier Laka Antxustegi

Idazkaria: María Jesús Cambra Contín, Kultura Sustatzeko teknikaria.

b) Sustapen-zabalkundearen eta argitalpenen modalitateak:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

Concepción Elorza Ibañez de Gauna

Juan Zapater Lopez

Xabier Gaintzarain Etxaniz

Idazkaria: María Jesús Cambra Contín, Kultura Sustatzeko teknikaria.

Bigarrena: ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 16a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.